

Bularretako haurra

Patxi Ezkiaga

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1990



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpau*



Bularretako haurra

Patxi Ezkiaga

Julene Azpeitia 3. ipuin lehiaketa

1990

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Patxi Ezkiaga (ipuinarena)

© Zumaiko Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Hamasei arrobakoa zen lurra eta laialariak fin eta erritmoki ari ziren lanean, martxoa izanik, laster prest egon behar baitzuten soroak gariaren ereintzarako. Arratseko zazpiak inguru izango ziren —hala zioen behintzat azken eguzkiaren epelerak eta, lerrokada pareta besterik geratzen ez zenez, ausartu ziren nekazariak halako solasaldia egitera.

—Bihar ekarriko omen din andregaia etxera. Bazirudin gau Dantxarian egotekoak direla.

Beste mundu batetik sortutako ahotsa zirudien —hain zen sakona eta zakarra— baina aldameneko andrearena zen, atorraren besoaz kopetako izerdia xukatzen zuen bitartean.

—Inork ikusi al din?

—Ez zekinat. Hala ere musugorri dotore bat dela entzun dinat, erantzun zion, bitartean zertxobait harantzago, lur gainean makurtuta, jaramonik egingo ez balu bezala, lanean ziharduen hogeita hamar bat urteko emakume argal eta luzexka bati begiratzen ziolarik.

—Bera baino urte batzuk gazteagoa, diotenez, jarraitu zuen lehenengoak, malizioski norantza berdinean begiraturuz.

—Zenbat urte botatzen dizkion, bada?

—Hogeita hamar bat.

—Ziur berrogeitik hurbilago dagoela. Jaio zenean bizarra mozten hasia ninunan... eta ordutik urte asko pasiak ditun, atxiki zion ezkerreko gizonak.

—Utziko al dituzue esamesak pakean! Ez dizuet horretarako ordaintzen. Gero jaunari errentak ematerakoan ez dit solasaldiaz galdetuko. Eutsi lanari, ze arraio!

Errazuko jaunaren izenean lurrak hartuta zeuzkan gizona zen, ahots metaliko, ozenekoa, ahantziak izango balitu bezala baztandarren inflexio malguak.

Bere aginduetara, isildu egin ziren gizon-emakumeak eta ez zen entzuteko moduko ezer gehiago aipatu Errazuko Fernandoren ezkontzaz, baina hizketan hasi zen emakumeak ezin izan zion tentaldiari eutsi, aldamenekoari 'gogorra izango dun berarentzat!', esan gabe, denen begirada jasan behar izan zuen

andrearengan erreparatuz. 'Ez uste', xuxurlatu zion lagunak, 'urteak izango ditun kasurik egiten ez diola'.

Handik ordu erdi batetara, eguneko laiaketa amaitu ondoren, soroaren ertz batean zegoen saletxera jo zuten denek, laiak horma alde batetik bestera zeharkatzen zuen ohol kakodun batetik zintzilikatzera. Gero norberak bere etxerako bidea hartu zuen.

Oraindik hitz egin gabe zegoen emakumea, ordea, ez zen bertatik mugitu. Kanpoaldeko harri baten gainean eseri eta han geratu zen, norbaiten zain, antza denez. Hamabi bat urteko mutikoa hurbiltzen ikusi zuenean, altxatu eta berarekin batera urrundu zen.

Herritik aparte xamarreko baserri txiki batean bizi ziren, pagadi mardularen lehen zuhaitzak hasten ziren puntuan, mendi aldera.

—Zure aitak bihar ekarriko duela bere emazte gaztea entzun dut. Zugarramurdira bidaliko zaitut. Ziur nago bidean aurkituko dituzula.

—Bai, ama. Orduan ezkondu al da aita?

—Bai... Bota iezaiozu begirada eta esadazu nolakoa den neska.

—Bai, ama.

—Ondo begiratu ea garaia den ala txikia, beltzarana ala gorrixka eta begiratu ea nekazarien eskuak dituen ala bizitzeko lanik egin behar izan ez duenaren andereñoarenak...

—Bai.

Gorantz ekin zioten bideari eta azkenik heldu ziren baserrira. Aspaldi zuritu eta konpondu gabe zegoen baina, zahartua egon arren, oraindik sumatzen zitzaion horma lodien ertzetan harri nabarraren noblezia. Txotxak bildu eta garo lehor pixka baten gainean ipiniz, sua piztu zuen amak. Belauniko jarraitu zuen pixka batean garrak areagotu ziren arte. Mihi horailek argitu egin zuten bere aurpegia eta antzina zoragarriak izandako begi beltz sakon haiek edertasun berri batez jantzi ziren. 'Bai, seme, esango didazu nolakoa den, garaia, txikia... baina batez ere bere eskuak; esango didazu zuriak ala ni bezalako laialari batenak diren...!'

Mutikoak baietza eman zion berriro, pagozko mahaian labainaz koska mozten ari zela konturatu gabe.

* * *

Ezin esan Dantxariatik Oharrizerako bidea laua denik. Zugarramurdi utzi eta Otxondoko gaina hartu baino lehen itxuragabe gora jotzen du, gero Amaiur iragan arte, tamainako aldats behean egiteko. Otxondo atzean utzita Oharritzeraino dagoen lautadan zaldi gainean ibiltzen baziren ere zaldunek, animaliatik jaitsi eta oinez egin behar izaten zuten Otxondoko gaina jo arte, gizonezkoek bederen.

Hurrengo ilunabarrean, eguzkiak ondino ortzia argitzen zuen bitartean berlina txikiak hasi zuen bortuaren igoera, behor boteretsu batek tiratuta. Berrogei urte inguruko gizon indartsu bat zihoan zuzentzen, osasunaren koloreak

bere aurpegi ongi afeitatuan. Azoka egunetan ongi bazkaldu eta etxerako bidean doazen baserritarren itxura ematen zion urteetan eguzkia, euria eta haizearen lotura estuan ibiltzearen ohiturak. Aldamenean eserita zihoan emakumeak —bera baino askoz gazteagoa— oraindik neska itxura zeukan. Gorriska ere bere aurpegi borobila, baina ez eguraldiak landua; bigunagoa zen, iheskorragoa, arrosa petalo azpian argia hartzen duen horietakoa.

Bide nagusia izan arren ez zuen jende askok oinkatzen eta aurrez aurre zeukaten lur eta harri-koxkorrezko bidea guztiz hutsik agertzen zen, han, aldaparen amaiera baino ehun bat metro beheraxeago ikustatzen zen orban mugikor harengatik izan ezik. Aldaparen zatirik gogorrenari ekiteko orduan gurutzatu zuten beraiek bezala, gora zihoana. Mutiko bat zen, zaku handia bizkar gainean. Bide erdian egoteagatik ere, jaunak ez zion baztertzeko esan, eta inolako jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuen. Mutila ahalik eta hurbilenetik jarraitzen saiatu zen.

—A ze begirada mutiko horrena!, esan zuen emazte gazteak.

—Bai, laztana, konturatu naiz.

—Herrikoa izango da, ez?

—Ingurukoa. Uste dut bere amarekin bizi dela gure etxetik kilometro pare batetara.

—Jakingo ote du nortzuk garen...

—Noski. Ohitu beharko zara. Hasieran denek horrela begiratuko dizute, Eli, laztana.

—Hala suposatzen dut, baina ez zen hori esan nahi nizuna. Nik uste dut ea zama hartuko ote genion edo esan nahi zigula.

—Ziur ezetz. Hemengo mutikoak txikitatik daude halako zakuak eramaten ohituta.

Gaina hartu zutenerako mutila leher eginda zegoen eta, bide ertzean eserita, ikusi zuen nola abiatzen ziren, berriro berlina gainean, Errazuko jauna eta bere emazte gaztea, lasterka aldats behera. Noizean behin gurpilek zanpatutako harri-koskorak une bateko sugar iheslari bihurtzen ziren udaberriko arrastiri gozo epelean.

Azkenik iritsi zen mutila etxera. Oiloentzako zekalea zeraman amak zakuto batean.

—Ikusi al duzu?

—Oso ongi.

—Andere itxura al du?

—Itxura baino gehiago. Goitik beherako anderea da.

—Gaztea?

—Oso gaztea, baina emakume itxura dauka.

—A, noski. Eta ilearen kolorea?

—Gorrixka argia, eta panpin batena akatsik gabeko aurpegia.

—Beraz, ez ditu nik bezalako begi ilun, sakonak?

—Ez, urdinxkak eta, irribarre egiten duenean, zuri zuriak hortzak.

—Garaia al da?

—Ez naiz konturatu. Bera eserita zihoan.

—Orduan zaude ziur, bihar igandea izanik, Elizondoko elizara joango dela. Garaiz heldu eta ongi ikusteko aukera izango duzu.

—Ama, zergatik ez zara zu zeu joaten?

—Ja! Ni! Ze uste duzu! Oraintxe bertan sukaldeko leiho paretik iraganen balitz ere ez nioke begirada beten mesedea egingo. Errazuko jaunarekin etorriko zen, ez? Zer zioen?

—Niri ez dit ezer esan.

—Baina ikusi al zaitu?

—Noski. Zuk esan bezala, bide erditik nindoan aurreratu nauenean.

Amak ohe ondoko aulkian utzitako alkandora garbia jantzita abiatu zen mutila Elizondoko elizarantz. Bataio ponte ondoan eseri zen sartzan ziren guztiak ongi ikusi ahal izateko. Errazuko Fernando eta emaztea lehenengoetakoak izan ziren. Meza bukaeran zuzen-zuzen etxera jo zuen mutilak.

—Um...?

—Txiki xamarra, erantzun zion semeak.

—Ah!, Aurpegiaren alde betetik bestera zabaldu zitzaion poztasuna.

—Baina oso, oso ederra da.

—Bazirudien Elixabeteren edertasun gazteak guztiz liluraturik zeukala mutikoa, bere bihotzari 'Halako norbait nahi nitek' esango balio bezala.

—Ez dut gehiago entzun beharrik. Eser zaitez mahaira. Atzo zepotan harrapatu zenituen xoxoak nahiko argalak dira baina, bueno, udaberria izateko ez daude gaizki. Uda amaieran harrapatuko dituzunak hauek baino gizenago egongo dira. A, baina, ez didazu esan nolako eskuak dituen.

—Ez dizkiot ikusi. Eskularruz estalita zeuzkan.

Bazkaritan mutilak ez zuen amaren jakin-minaren beharrik Errazuko andere gaztearen aintzak laudatzeko. Ohar eta berrien iturri joria zirudien, amak irribarrez begiratzen zion bitartean.

Astelehen goizean Elbira Argiñarena bere ohizko laiatzera iritsi zenean inork ez zuen andere gazteari buruzko komentariarik egin. Denek zekiten neska luzekaren historia tristea eta Isidro baserritarrak esana zien besteei Elbira heltzen zenetik isiltasunez errespetatzeko andre arbuiatuaren pena. Baina, bestalde, egun haietan ez zegoen beste gairik denen ahotan eta semearengandik jasotakoak eta belarriak luzatuz entzun ahal izandakoak Elixabete gazteari buruzko irudi zehatz xamarra osatzen ahalegindu zion.

* * *

Hiru aste joanak ziren emazte gaztearen etorreratik eta mutila oheratu ondoren Elbira suari begira geratu zen, supazterraren alboan, begiak zabal

zabalik, sugarren mila marrazkitan murgilduta. Umorez hasia zuen, lana bukatu orduko, etxerako bidea, kukuaren lehen kantaren eraginez. Udaberrio itxaroten zuen, ilusioz, egun hura, nolabait bizitzaren erritmoak etengabe aurrera jotzen zuenaren ziurtasun gisa.

Suari begira zegoen eta astiro-astiro, kukuarena ahanzi eta umorea aldatzen joan zitzaion tximiniarantz lasterkatzen ziren garretan Errazuko andere gaztearen irudia bizi bizirik gauzatzen zuen heinean.

Konturatzeke joan zitzaion denbora eta ihizko aukitik altxatu eta leihotik kanpora begiratu zuenean ilargi bete ortziaren gain gainean zegoela konturatu zen. Berandu behar zuen izan, oheratzeko ordua.

Ohean etzan zenean, ordea, ezinezkoa zitzaion burutik Elixabeteren irudia baztertzea. Beste zerbaitetan pentsatuz uxatzen saiatu zen, baina alferrik. Poliki, poliki eta konturatu gabe, loak hartu zuen, emazte gaztearen presentzia hurbila Elbiraren ametsen eta inkonzientearen munduaren jabe. Andregaietz jantzita zetorkion, krabelin zuri gorriak soineko zuri brodatua osatzeko buruan zeraman setazko toka berdea errematatuz. Pausoka zetorkion eta irribarrez, etsaia zanpatu ondorengo garaipena adierazten dutenen mespretxuzko begirada maltzur, zitalez. Zapi gorritz estaliriko otarrea zekarren ezkerrean eta, zapia lurreratu orduko, kamelia eta arrosa euriz bete zion ohea. Elbirak aurrerantz egin zuen emaztegaia heldu nahian baina erraztasunez ihes egin zion. Arnasestuka itxaron zuen emakumeak bere ezintasunezko ohean, eskuarka apartatuz estaltzen zuten loreen petaloak.

Elixabete berriro agertu zitzaionean izerditan zegoen emakumea. Orain bilutsik zetorkion, lehen baina maltzurragoa irribarrea, izter artean ezker eskua, eskuinez ezkerreko ditia ukitzen zuen bitartean. Ditiburuen kolore arrosa argiak liluratzen zituen Elbiraren begiak. Harridurak jota bezala gelditu zen emakumea, andregai ohera igo eta beraren gainean etzan zenean. Emeki-emeki ireki zion Elbirari atorra eta emekiago estutu zizkion bi bularrak. Itotzen sentitzen zen, gaineko neska gaztearen zamaz. Lepotik eutsi zion gero. Aho zabalik irentsi nahi zuen Elbirak airea baina gaineko zamak eta esku zuri bihurrituek ez zioten aukerarik ematen. Azken indarrak bilduz apartatu zuen Elixabete eta neurrigabeko amorruez josi zituen hortzak emaztegaiaren eskuineko bularrean. Oihu batez esnatu zen eta jauziz eseri ohean.

Ahoan zapo gozo mikatz epela sumatu zuen. Maindirearen muturraz ukitu zituen hortzak. Gaueko iluntasunean ezin izan zuen kolorerik nabarmendu. Dardaraka ohetik jaiki eta gela inguruan begiratu zuen. Ez zegoen inor. Ohera itzuli zen eta etzan, baina egunsentiaren lehen argiak iratzarri aurkitu zuen. Marroi iluna zen maindire muturreko orbana. Egun osoa lanean eman izan balu baino unatuago eseri zen gosaltzeko.

—Ama, zer izan da gaueko zure gelako zarata? Ohetik erori zara ala?

—Zerbait erortzen entzun al duzu, seme? Ze ordutan?

—Ez dakit, ama. Baina gauerdia iragana izango zen.

—Tira, lagun iezadazu etxeko lanetan. Gero zoaz Isidrorengana eta esaiozu ez naizela lanera joango; ez nagoela ondo.

Berehala egin zuen mutilak manatua. Ez ziren goizeko hamarrak izango oiloen algarak norbaiten presentzia igarri zuenean. Elbirak leihotik begiratu

zuen. Ehun metrotara, bidezidorretik, bere ametsetako Elixabete zetorren. Elbira aztiren batek xarmak liluratuta bezala gelditu zen.

—A, bai! Atzo bertan esan zidan etorriko zela, ama. Ahaztu egin zitzaidan zuri esatea.

—Esan... zer esan? Baina, noiz? Eta nola ezagutzen gaitu?

—Atzo berarekin hizketan egon nintzen.

—Esan nizun, ba, etxe horretara hurbildu ere ez egiteko, eta are gutxiago inorekin hitz egiteko.

—Bidean topo egin genuen. Bera aurreratu zitzaidan. 'Zu al zara Otxondon aurkitu genuen gizarajoa?'. Gero nire bota zaharrei begira gelditu zen, oso hautsita zeudenez ez zidatela mesede handirik egingo egun euritsuetan. Amarekin bakarrik bizi nintzela esan nion, Errazuko jaunaren lurretan lan egiten zenuela Isidoren agintepean eta nekez genuela bizitzeko aski. 'Nerauk eramango dizkizut bota berriak', esan zidan. Ez naiz lehenengoa izango, ama. Entzun dut beste batzuei ere eman dizkiela gauzak.

Elixabete dagoeneko langa ondoan zegoen. Goitik behera begiratu zion Elbirak. Aurpegi maltzurreko begirada bihurritua aurkitu nahi izan zuen nolabait emakume gazte eta eder harenganako biltzen ari zen gorrotoa zuritu ahal izateko. Honela nolabait posible zitzaiokeen mespretxuzko begirada itzuli eta, atzeko atetik jalgiz, urruntzea. Baina baserriak, hain txikia eta pobrea izanik, ez zuen atzeko aterik eta Elixabeteren aurpegiko begiradan gozotasuna zen nagusi, eta gaztetasunaren xarma.

—Badirudi asmatu egin dudala, aurreratu zen mutila amaren alboan ikusi zuenean.

Ibilkera eta gorputzaren jarrera ikuskariko andregaiarenak ziren eta berdina ere ezkerreko besotik helduta zekarren saskia. Baina ahotsa xuxurlaria zen, biguna, ziurtatzailea. Elbira bat-batean poztu egin zen andre gazte hura etxetik bidali ez zuelako. Botak utzi zizkion mutilari.

Handik egun pare batetara itzuli zen ongi zegozkion ala ez jakiteko.

—Manatu batzuk egitera bidalia dut eta oraintxe betan ez dago etxean. Baina, bai, oso ondo dauzka. Eskerrik asko.

—Asko atsegin dut ibiltzea eta zure etxea urruti xamar dagoenez... Zer moduz zaude? Ez duzu itxura onik.

Barrez erantzun zion Elbirak. Arras ongi sentitzen zela eta ez fidatzeko gehiegi nekazarien itxuragatik. Nekatuak eta ahituak eman arren oraindik indar asko ezkutatzen zutela gorputzean edozein premiatarako. Gero gauza bera espero zuela berarentzat esan zion eta Baztango hezedura errukiorra izan zekiola. Biak hasi ziren barrez.

—Ez, ezin dut esan gaizki doakidanik. Oso pozik nago. Halere badut hemen zerbait azken egunotan kezkatzen hasia zaidana.

—Eskuineko bularra adierazi zion behatz batekin eta 'Erakutsiko dizut' esan, begi-bistan ez zegoela inor ziurtatu ondoren.

—A ze gauza bitxia. Eta mina egiten al dizu?

—Ez gehiegi oraingo z baina... Hauxe egun batzuk amestzar izugarri bat izan nuen. Guztiz ezezaguna egiten zitzaidan etxe bateko gelan nengoelarik norbaitek hozkatu egin zidala ditia amestu nuen. Izu-ikaraz esnatu nintzen. Senarra esnatu nahi ez nuenez hurrengo goizerarte ez nuen begiratu ere egin. Baina goizean markak hementxe zeuden. Oraingo toki berean, hortzen markak. Baina ni ez naiz sineskeriatan ibiltzen den emakumea eta berezko argibideen bila aritu naiz. Segur aski nonbait erorita edo... baina ez dut erori naizenik gogoratzen... Azkenean senarrari bota behar izan dizkiot erruak. Halako batean sutsuegi ez ote nauen laztandu edo...

—Eta zehazki noiz gertatu zitzazun bada?

—Bihar izango dira bi aste. Gauerdia pasata izan zen.

Elbiraren barne mundua zurrumbilo durunditsuan iraultzen hasi zen. Bere ikuskariako gau eta ordu berdina ziren. 'Hala izango ote da, Jaungoiko santua! Deabruak irabazi ote nau eta bere botereak eman?', pentsatzen zuen Elbirak, Elixabete beste egun bat arte aldentzen zen bitartean. 'Egia ote da, jendeak esan ohi duen bezala, aztikeriaren espiritu gaiztoak harrapatua naukara Errazuko jaunaren ohea utzi behar izan zuenetik? Hala ote?'. Etsiturik egin zuen etxe barrura.

* * *

Gereziondoaren lore zuriak dagoeneko ginda beltza eta anpolai bete zukutsu bihurtuak zeuden eta sagarrondokoak udazkeneko ale borobilen agintza eskaintzen. Udan sartuta zegoen izadia eta bailarako jendearentzat ere udak aurrera jotzen zuen. Elbirak Errazuko andrearekin topo egiteko beldur ezkutua sortzen sumatu zuen bere bihotzean. Ez gorrotorik ziolako ordea. Aspaldidanik joanak ziren egun haiek eta nolabaiteko maitasun eta konfiantzari tokia utzia zioten, emakume gazte hark erakarrita. Baina bazirudien lana amaitu eta etxeranzko bidean abiatzen zen askotan aurrez aurre aurkitu behar zuela. Hala gertatu zen ostegun arratsalde hartan. Zuzenean galdetu zion.

—Zure bular hori... zera, hobeto egongo dela espero dut.

—Ez, ba, ez dago batere ondo; alderantziz, okerragora doala esango nuke. Izan ere, batzuetan jasangaitza gertatzen zait mina.

—Sendagileren bat ikusi beharko zenuke.

Senarraren aholkua jarraituz jadanik izana zela esan zion baina halako gaitzik inoiz ikusi gabe zegoenez ez zela ausartzen ozpinez eta gatz ugariz osatutako ur bero igurtziak besterik gomendatzen erantzun ziola.

—Erakutsiko al didazu mesedez?

Bularrean ez zen zaurien seinalerik nabaritzen baina beltz horixkak bihurtuta zeuden hasierako puntu haiek, hozkadaren ondorio izan zitekeela nabarmenduz. Itsusia, oso itsusia iruditu zitzaien Elbirari zimeltzen ari zen bular haren itxura eta instintiboki itxi egin zituen begiak gehiago ikusi nahi ez bailuen.

—Senarrak deabrukeriatan pentsatzen hasi beharko dugula dio, aztiren batek, sorginen batek ametsetan berea egin nahi izan banindu bezala.

Dardarak harrapatu zuen Elbira.

—Ez duzu ba halako gauzetan sinestuko! Dena den, ziur nago azkenik nolabait sendatuko zaizula. Ni ez nintzateke gehiegi larrituko.

—Ezta ni ere nire senarrari axola ez balitzaio. Baina azken hilabete honetan sumatu dut ez nauela lehen bezala maitatzen. Lehen besoetan hartu eta...

Elbirak begia itxi zituen. Oroitzapen biziak sortarazten zizkioten Elbiraren hitzek. Errazuko jaunaren emaztea negarrez hasi zen. Norbera bere munduan murgildurik, elkarri hitz gehiagorik esan gabe, batak besteari agurra egin zioten.

Minaren eta desesperantzaren munduan bata, kontraesanezko sentimendu bortitzetan Elbira, bihotzaren sekretuenean pozik alde batetik noizbait jaunaren ohera itzultzeko geratzen zitzaizkion esperantza txikiak lapurtu zizkion andre gaztea ere Errazuko Fernandoren amodiotik urruntzen ari zelako, eta tristeza bestetik, nolabait merezi ez zuen etsipenezko infernuan jaurtikia zuelako edonon adiskidetasuna eta laguntza banatzen saiatzen zen emakume hura.

Bere buruarekin haserre bizian igaro zuen gaua. Esan nahi ziokeen ikuskaria izugarri hartan bere gelan gertatutakoa baina ez zen ausartzen.

Egunsentian, sukaldean orrazten ari zirelarik itzal baten presentzia sumatu zuen ispiluan, luzatzen. Leihotik hitz egin zion.

—Elbira, ni naiz, Elixabete. Inork ikus ez nazan etorri naiz hain goiz.

Sukaldean sartu zen.

—Mutila?

—Oraindik lotan dago.

—Atzo, itzuli nintzenean, etxeko zerbitzari batzuk hemendik nahiko urrun bizi den sendagile bati buruz hitz egin zidaten. Ez omen dakite oraindik hilik ala bizirik dagoen baina botere handiko gizona dela. Inguruetakoa beste inortxok baino hobeto jakingo duzula bere berri.

—Zein? Uzuri aztia?

—Bai, Uzuri uste dut. Bizi al da?

—Hala uste dut, erantzun zion Elbirak ezkutatu ezinezko gogo txarrez.

—Baina, zergatik deitu diozu 'aztia'?

—Ez, zera... badakizu jendeak mingaina luzea izaten duela; err... zera diote, err... botere bereziak dituela edo... guk, pertsona arruntok, ez ditugunak. Baina ergelkeria deritzat halako gauzetan sinestea...

—Inporta ez balitzaizu... eskertuko nizuke lagunduko bazenit. Egin ditut egin nitzakeen saio guztiak eta...

—Zera... ni... ni...

Izuikarak inguratu zuen andrea. Zerbaitek adierazten zion galtzear zegoela emakume gazte haren laguntasuna, betirako... agian Uzurik ezagut zezakeela min beldurgarri haren iturburua. Baina, urrunegi joana izanik, baietz agindu zion.

* * *

Amaiurren elkartu ziren. Laster, aldats gorako azken belardiak atzen utzi eta gero pagadi oparoan sartu ziren. Urtxintxa baten jauzketak salatu zuen hasieratik bien presentzia. Bidezidorrak gora eta behera egiten zuen eta oso luzea gertatzen ari zitzaion bidea Elixabeteri. Azkenik, pagadiaren amaierako iratze garaietan sartu zirenean, berehala hartu zuten behealdera jotzen zuen gurdibidea. Baserri kaskar bat sumatzen zen urrun xamar, gurdibidea amaitzen zen hartan. Gizon bat, lurrean makurturik, nolabaiteko lanetan ari zen. 'Bera da', esan zion Elbirak Elixabeteri. Burua altxatu zuen gizonak. Zaharra zen eta zimurdura sakonek zeharkatzen zuten bere aurpegi zimeldua.

—Aspaldian ikusi gabe zintudan, andere... Zerk zakartza oraingo honetan?

Bihotzak indarrez jo zion Elbirari. Dagoeneko hamahiru urte iraganak izan arren neguko egun elurtsu hartatik, zaharrak gogoratu egiten zuen irrikatzen zuen gizonaren bihotza irabazteagatik laguntza eske joan zitzaion neska gazte eta luzaska. Elbirak bere aldameneko emakumeari begiratu zion agian konturatzeko pasako zitzaiolakoan agurearen agurra. Baina Elixabeteren begiek alderantziz zioten.

—Lagun honen erreguz etorri natzaizu.

Hitz gutxitan adierazi zion Elixabetek bere gaitzaren kezka eta mina. Etxe barrura sarrarazi zion agureak. Kanpoan nahiko epel izateagatik ere, piztuta zeukan supazterra. Arreta handiz begiratu zion bularra.

—Barka, andere, baina ez dago gaitz hau senda diezazukeen botikarik. Etsai baten lana da. Etsai batena? Baina... nik ez dut etsirik munduan, ezaguna zaidanik behintzat... Etsaia... zein etsai?

—Zeuk inortxok baino hobeto jakingo duzu. Nahi izanez gero erakuts diezazuket zein den etsai hori, baina nahiago nuke horrelakorik egin behar ez izaterik...

Elixabeteren behin eta berriroko erreguengatik sutondora hurbiltzeko esan zion Elbira kanpora bidaltzen zuen bitartean. Ate ondolik begira geratu zen. Elixabeteri esertzeko agindu ondoren egurrezko habetik zintzilik zeukan kaiola baterantz jo zuen aitonak. Kaiola barruko xoxoa zalaparta bizian hasi zen, zetorkionaren jakinean egongo balitz bezala. Atetxoa ireki eta ezkerrean hartu zuen belztasun ederra. Txoria eskuan zuelarik kristalezko txarro batekin kanpora jo zuen. Itzuli zenean urez beteta zekarren txarroa. Supazter ondoko aulki baten gainean jarri zuen. Gero, eskuinez, hitz misterios batzuk ihardetsi ondoren lepoa bihurritu zion xoxoari. Elixabeteri beldurgarria iruditu zitzaion hildako begi horixka haietan sugarren isla. Labaina hartu eta bularra irekitzen hasi zitzaion. 'Odola uretara erori orduko, aurpegi baten irudia sumatuko duzu nahasketa momentuan'. Atea erdi irekita egon arren urrutiegi gelditzen zen Elbirarentzako txarroan ezer sumatzeko.

—Sumatzen al duzu ezer? Ezaguna al zaizu agertzen zaizun aurpegia?

Entzunezina zen Elixabeteren erantzuna, baina gero eta arreta handiagoz jarraitzen zuen txarroari begira. Elbira, itzuli eta aldendu egin zen.

Elixabete sukaldeko iluntasunetik arrastiriko ergira irten zenean arras erraza zen bere aurpegian zurbiltasun berri eta izukor baten presentzia salatari. Bi emakumeak itzulerarako bidean jarri ziren. Elbira berehala konturatu zen Elixabeterengan gertatutako aldaketaz.

—Diru asko eskatu al dizu?

—Ez du ezer hartu nahi izan.

—Eta zer ikusi duzu?

Nabarmenegia zen ezinegona Elixabeteren jarreran.

—Bueno... esan dezagun... Ez, tira, ezer ez.

Une luzea eman zuten elkarri hitzik esan gabe. Xorien kantuak ere ozenagoa zirudien ilunabarrean. Urdazubiko lurrak atzean utzi eta Amaiurrera jaisterakoan hautsi zuen Elixabetek isiltasuna.

—Baina... ez zinen ba zu izango hona etortzea proposatu zenidana. Benetan...

—Ez. Ahaztu al zaizu? Zuk zeuk eskatu zenidalako lagundu dizut. Niri hemen ez zait ezer galdu... Dena den, agian ez da txarrerako izango etorri ahal izatea.

Berriro norberaren sentimenduetan murgildurik jarraitu zuten. 'Agian... agian... ea benetan ditudan nik ere halako botere...'. Une bateko irribarre iheslaria agertu zen Elbiraren aurpegian. Egunak joan ahala ordea gero eta salatzaileagoak egiten zitzaizkion laneko lagunek eta herriko biztanleek botatzen zizkioten begiradak.

Negua izugarri gogorra gertatu zen urte hartan eta artazuriketako arratsalde luzeak jasangaitzak bihurtu zitzaizkion. Udaberria loratzen hasi zeneko hutsik gelditu zen mendi mazeleko baserri txikia, beste norabaiteko bidean abiatuak Elbira eta bere seme gaztea.

* * *

Neguak joan, udaberriak etorri, sei bat urte iraganak ziren eta Elixabeteren bizitza amodioaren aldats beherako lasterketa amaigabeen sartua zegoen, gero eta ilunago Errazuko jauna, gero eta etsituago hogeita bost urteko emaztea. Antzinako neska zoragarri hark bazekien zoritxarreko bular hura zela hondamenaren abiapuntua. Bestalde zazpi urte zeramatzen ezkondurik eta oraindik ez zion semerik eman Fernandori. 'Ene gurasoen gurasoen gurasoengandik datorkidan jauregi hau... zeini pasa behar zioat semerik ez badiat?'. Eta Elbira eta bere semearen oroitza penaren aurpegia hartzen zuen bere erresuminak.

Milaka ukendu eta botika probatuak zituen Elixabetek, sendatu eta osteria bere senarrarenganako lakotzari bihurtuko zutelakoan. Ez zen besterik azaltzen bere gelako egurrezko apaletan. Alferrik ordea.

'Pozoindu besterik ez zara egingo honenbeste zikinkeriaz'. Baina hitz egin bezain laster mutu geratzen zen senarra, emazte gaztearen begirada triste, ilun eta antsizkoa jasotzerakoan. Errazuko jaunak bazekien norengatik saiatzen zen etsitu gabe Elixabete.

—Uste dut bakarregi aurkitzen garela, Elixabete. Aspaldi xamar pasa ere pasa zitzaidan burutik haur bat hartzea... baina helduegia litzateke orain. Beranduegi da...

Soberan zekien emazteak nori buruz ari zen Errazuko jauna. Aspalditik iritsi zitzaion belarrira Elbira eta bere seme haren historia. Ordura arte bihotzean gorderik zeraman pena zen, eta orain ez zuen pikutara botako hainbeste kostatako isiltasuna. Batere haserrerik gabeko begirada jaitsi eta lurrera miaka geratu zen. 'Zazpi urtetako ezkontza, hilabete batzuetako zoriona eta urte askotako...'. Elixabete ez zen ausartu otu zitzaion burutapena bukatzea. Baina ez zegoen amore emateko prest. Etxeko ukendu, belar, liburu beltz eta sorginkeriak bota zituen, asmo bakarra bere baitan. 'Azken aldiz baldin bada ere, egin behar diot ba beste ikustaldia Uzuri aztiari'.

Eta harantz abiatu zen, inoren konpainiarik gabe oraingo honetan. Lotsa ere, lotsa emango zion aiton hari bere bular beltz horixka eta kaskar, zeharo kaskar hura erakustea, baina beste erremediorik ez zegoenez...

Etxetik urrun aurkitu zuen, bere oinen puntatan, sagarrondo batetik mihura biltzen. Agureak berehala ezagutu zuen.

—Badakit zerk zakartzan hona.

—Granoak eta makina bat zorne kendu izan dituzu... Senda iezadazu mesedez zorigaitzeko eritasun hau. Min handia egiten dit, eta zapuztu egingo nau senarrak.

—Esan nizun etsai baten lana zela. Ez da batere erraza izango.

—Edozer egiteko prest nauzu. Edozer.

—Nik dakidanez erremedio bat besterik ez dago halako gaitzentzako. Orain arte ez dit inoiz hutsegin baina gogorra, oso gogorra izaten da. Orain mordo bat urte saiatu genuen azkeneko aldiz... eta geroztik inor ez da ausartu berriz saiatzera.

—Esadazu, bada.

—Badakizu noizean behin sorgintzat jotzen duten jendea torturatu eta erre egiten dutela. Horietako baten azken nahia betetzea da zurea bezalako gaitzak sendatzeko konponbide bakarra.

—Ez zait honen zaila iruditzen. Agian bere etxekoentzako dirua eta laguntza eskatuko dit.

—Azkenekoa ez zen hain erraza izan. Inkisitzaille nagusiaren etxeari su ematea eskatu zion. Azken nahia betetzen ari zelarik harrapatu zuten eta bertan hil... Gainera norbaiten laguntza beharko duzu herio bezperan berarekin egoteko baimena eman diezazuten... Ez da izaten hain erraza.

Elixabetek ez zion erantzun. Uzuri zaharrak ez zuen ezer hartu izan nahi eta emazte gazteaz kupiturik, aldats gora lagundu zion Amaiurrerako bidea ikusten zen tokiraino.

* * *

Asko kostata, baina azkenik hartu zuen erabakia. Bere sekretua izango zen, inorekin partekatu ezina. Erabakiak bizia zeharo aldatu zion. Bihotzaren sakonenean, lehenengo aldiz bere bizitzan, norbaiten heriotza irrikatzen aurkitu zen eta, esperantza horrekin, orduak eta egunak ematen zituen hemendik hara

bere zaldi gainean halako erreketaren bat noiz gertatuko ote zen jakin nahiz. Merkatuak zirelako berri banatzailerik hoberenak, ez zuen inoiz huts egiten nahiz Elizondo nahiz beste herrietako feria egunetan.

Elizondon jakin zuen, hain zuzen ere, handik egun batzuetara epaitu eta erretzekoak zirela Mendibeko jaunari hamar behi lapurtzearen salaketa pean atxiloturik zegoen gizon gazte bat. Garazi urruti zegoen ordea eta Elixabetek orduak ematen zituen pentsatzen nola jakinarazi ziezaiokeen bere senarrari bidaiaren berri, eta gaua etxetik kanpo pasa behar izatearen motiboa.

Hurrengo egunean goibeldurik aurkitu zuen senarra. Ez zen halako gauzarik aipatzeko unerik egokiena. Baina Fernando bera aurreratu zitzaion. 'Urrunera joan beharrean nago, maitea, aspalditik erabaki gabe ditudan lege aldetiko zenbait arazo konpontzera. Egun batzuetan ez nauzu hemen izango'.

—Zoaz lasai, gizona. Baina oraingoan ez iezadazu eska zurekin joatea. Badakit zenbat atsegin duzun lagun diezazudan... Bularreko min honekin ordea...

Gainetik pisu galanta kendu izan baliote bezala hartu zuen Errazuko jaunak emaztearen erabakia.

Senarra baino hiru egun geroago irten zen Elixabete etxetik. Bezperan esan berri zion Elizondoko merkatarari batek asteartean bertan kondenatua izanik, larunbat eguerdian izatekoa zela gizon gaztearen erreketak.

Behor zahar eta fidagarri baten gainean abiatu zen Errazuko andrea txikitari hainbeste aldiz gozatutako Garazira. Urrunetik ikusi zuen bere haurtzaroko hiri maitagarria. Urteak ziren bisitatzen ez zuela baina harresi sendoz inguratutako gaztelu hura konfundiezina zen.

Ostiral ilunabarrez heldu zen. Inor ez zen erreparatu beraz. Azken batez, hurrengo eguneko ikuskizuna begiratzera etorriko zirenen arteko beste bat gehiago... Horietakotzat jo zuen hain zuzen ere ostatuko jabeak. Elixabetek zeraman janzkerak ez zuen besterik adierazten.

'Eguerdiko hamabitan izango da, neska', esanez erantzun zion ostalariak Elixabeti. 'Honezkero prestatua egongo da plaza'. Ostalariak ez zuen inoren bultzadaren beharrik hizketan jarraitzeko. Dena den xuxurlaka urreratu zion hurrengo albistea. 'Inor ez dago ziur bera izan den ala ez, bina badakizu jaunek noizean behin errudun bat behar izaten dute jendearen bihotzean beldurrak tinko iraun dezan. Entzuna daukat itzeleko defendatzaileak izan dituela gazteak, baina hemen ez dago inor Mendibeko jaunari bere borondatea egitea ukatuko dionik'.

Behin bere logelan bururatu zitzaion Elixabeti nolabait lortu beharko zukeela erreketak baino zertxobait lehenago kartzelan sartzea. Beranduegi halako gauza batekin epaileengana jotzeko... 'Eta borreroarengana joaten banaiz...'. Ideia bero-bero bere buruan, jautsi zituen eskailerak.

—Barka, ostalari jauna. Ez naiz inoiz halako ikuskizun batean izan eta desio nuke borreroarekin mintzatzea.

Erromatar zubi ondoan zegoen etxetxora joateko esan zion ostalariak, han bizi zela borreroa.

Gelan arropa aldatu eta gero Elixabetek ez zuen ematen aldiz etorritako neska pobrea. Erortzen hasia zen gaua ibaia jarraituz zubira iritsi zenean. 'Ez dago besterik. Horko etxe horrek beharko du izan...!'

Orduantxe ikusi zuen gizona, Kriseilua eskuan, barrutik aurreko atea ixtera zihoan. Elixabete lasterka hurbildu zitzaion.

—Barka, jauna.

—Zer nahi duzu?

—Minutu batez zurekin mintzatu nahi nuke, jauna.

Gizonak kriseilua altxatu zuen andrea hobeto ikusteko.

—Oraintxe nindoan ohera. Bihar lan asko izango dut eta garaiz oheratzea laket zati. Bina...bon, zu bezalako batentzat... tira, pasa zaitez.

Hizketan hasi ziren.

—Hamabitan orduan...

—Bai, azken orduko barkamenik ez badago behintzat...

—Ez dadila horrelakorik! Espontaneoki irten zitzaion esaldia Elixabeti.

—Ni... bon... ni halako gauzetan ohituta nago. Hala ere, norbaitek barkamenik izatekotan... Hain gaztea da... hemeretzi bete berria... eta ez dut uste errudunena bera izan denik... Baina, zergatik egon nahi duzu berarekin erreketara aurretik?

—Bere azken nahia... Nola esango nizuke... Gaitz nazkagarri bat daukat hemen, bularrean, eta Urdazubiko Uzuri aztiak...

—Orain ulertzen dut. Ez zara lehenengoa andere. Lehen ere izan dira horrelakoak. Azkenekoa ordea...

—Bai, bai, esan didate.

—Badakizu epailearen baimenik gabe ezin dela horrelakorik egin...

—Jauna, ez zara damutuko niri laguntzeagatik. Esan nahi dut... Baina gure arteko gauza bezala gordetzea nahi nuke.

—Maitalerik edo tartean...?

—Senarra, jauna.

Gizon zaharrak esku eman zuen. 'Hamarretan atzeko atean bazaude, sartuko zaitut'.

Elizako kanpaiak bederatziak jo zituen. Ostatura abiatu baino lehen kartzelara jo zuen Elixabetek atzeko atea non zegoen ziurtatzearen. 'Hor egongo da gizarajoa' pentsatuz aldendu zen.

* * *

Bederatzi t'erdietan utzi zuen ostatua. Kalera irten orduko suma zitekeen egun handi baten aurrean zeudela. 'Gizon baten erreketara ikuskizun bihur daitekeela pentsatzeak bakarrik...', baina Elixabetek ez zion denborarik eman burutapenari.

Hamarretan ireki zion borrero zaharrak atzeko atea.

—Zaude horko gelatxo horretan, andere. Berehala nauzu hemen kondenatuarekin.

Hamar bat minutu barru ekarri zion. Begientzat bi urradura besterik ez zuen txano beltz batez estalita zaukan burua. Gizon garaia zen, indartsua. Elixabete altxatu egin zen. Une batez ez aurrera ez atzera gelditu zen kondenatua.

Bihotza gorputzetik ihesi joango balitzaio bezala sumatu zituen emakumeak taupada ozen eta lasterkatuak bere barnean. Zerbaitek atzera bultzatzen zuen. Zerbaitek... 'Baina ez, urrutiegiraino jo dut eta ez dut atzera egingo', pentsatuz mintzatu zitzaion, beldurrez gainezka bere xuxurlapena.

—Zein da zure azken nahia?

Kondenatuak ez zion erantzun. Keinu batez, idazteko zerbaitek eskatu zion borreroari. Biak aldendu ziren. Itzuli zirenean dardarka eskuratu zion borreroak andreari paper puska. Aurpegitik kolorea joan egin zitzaion Elixabeti eta adorea bihotzetik.

—Baina hori bekatua da...

Ozta-ozta irten zitzaizkion hitzak.

'Aldamenean egongo naiz' esanez erretiratu zen borrero zaharra.

Basatiki ekin zion kondenatuak Elixabeten gorputzean bere azken nahiari.

Emakumearen oihuak hautsi zuen ondorengo isiltasuna. Gertatu berria zen Uzuri aztiak igarritakoa. Aztoratuta hurbildu zitzaion borreroa. 'Zoaz, andere. Apaizarentzat eta ahaideentzat izaten da kondenatuaren azken ordua'.

Elixabeteri andre baten negarra iritsi zitzaion iraganbidetik. Itzuli egin zen.

—Zu... zu... hemen...?

Elixabetek lasterka egin zuen. Kondenatuaren amari maitekiro lepotik helduta Errazuko jauna zegoen.